



ikastolak



JASO IKASTOLA
IRUÑEA



Gure baratzak baliabide bikaina eskaintzen die haurrei ingurune naturala ezagutzeko.

Baratza, komunitate osoak eraikitako proiektu hezigarria

ORAIN BI IKASTURTE HASI GINEN KANPOALDEAN DUGUN LUR EREMU TXIKI BATZUK PROBESTEN "ESKOLA-BARATZEA" GARATZEKO

Testua eta argazkia Jaso Ikastola

Baratzea Haur Hezkuntzarako proiektua izan da orain arte, eta baliabide bikaina eskaintzen die ikasleei euren natur inguruneari buruzko esperientzia anitz ahalbidetzeko, ingurunearekin ditugun harremanak eta menpekotasunak ulertzeko, eta ingurugiroa zaintzeko eta ingurugiroaz arduratzeko jarrerak eta azturak praktikan

jartzeko; horiek guztiak oso esperientzia interesgarriak dira, Ingurugiro Hezkuntzan funtsezko gaitasunak garatzeko. Ingurunea lantzeaz gain, baratzea zehar lerroak lantzeko marko hobeazina dugu, izan ere, bertan gai desberdinak sartzen dira, hala nola, kontsumoa, elikadura, zaborrak eta birziklapena, osasuna eta herrialde eta baloreen garapena, besteak bes-

te bizimodu guztiak estimatzea, beste pertsonetikiko eta planetarekiko zuzentasuna eta elkartasuna. Eskola-baratzea, bestalde, ikastetxeko "ingurugiro-kalitatea" hobetzeko modu bat eman digu.

HAUR HEZKUNTZAKO FAMILIAK LURRA LANTZEN Jaso Ikastolaren baratzearen proiektuan Jasoko Komunitate

osoak parte hartzen du. Haur Hezkuntzako familiei bidaltzen zaie gonbidapena baratze lurrak prestatzeko. Hogeit bat aita-ama, eta aiton-amonak ere, etorri izan zaizkigu gure ikasleen baratza atontzeko. Lana amaitu ondoren meriendaxoa ere prestatu izan ohi dugu.

Lurra prest dugunean, Haur Hezkuntzako ikasleen ardura da landatzea, landatutakoa zaintzea (ureztatzea) eta nola ez uza jasotzea.

Arrakasta itzela izan da aurreko urteko uza eta gure baratza handituz joan da tamainaz baita uztaz ere.

Hasieran, Haur Hezkuntzarako proiektua izan behar zuena, Lehen

Hezkuntzako ikasle talde bat ere ari da laguntzen. Baratza nola landu ikusteko eta ikasteko aukera ezin hobea dute gure ikasleek.

JASANGARRITASUNA ETA ELIKADURA OSASUNTUAREN ALDE Eskola-baratzea, bestalde, ikastetxeko jasangarritasun ekimenak hobetzeko modu bat eman digu. Baratze uztaren soberrakinekin gure onpostan egin dugu eta aurtin, beste urtean ez bezala, udan ere barazkiak landu ditugu eta dagoeneko Ikastolako sukaldean tokian tokiko produktuak jaten ditugula esan dezakegu, gureak alegia. Tipulak, azenarioak, tokmatea, eta nola ez, kalabazak kiloka jaso ditugu.

Aurrera begira gure baratze etekin handiagoa ateratu nahi diogu. Familien eta irakasleen laguntzarekin urte osoan zehar bizirik mantendu nahi dugun proiektua da. Izan ere auzolanaren eredu paregabea bihurtu da Jaso Ikastolan eta bertan laguntza zuzenik eman ez arren denok sentitzen gara "gure baratzearen" zati bat. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Noiz abiarazi zuten Jaso Ikastolakoe euren baratza proiektua?
 2. Zenbat guraso etorri ziren baratze lurra prestatzera?
 3. Zer egiten dute soberakinekin?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Ione Huizi (Labiaga Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Axular Aleman (Baztan Ikastola).
INTER-SPORT IRABIA (baloia) Iker Sola (Gareseko Eskola).
ASEGARCE (4 sarrera): Maider Ayerza (Zizurreko Ikastetxea).



CLUB ATLÉTICO
OSASUNA



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua era-kundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.